BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4178

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 10ekoa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, artzain txakurren 2012ko lehiaketa ofizialak finkatzekoa.

Artzain txakurren inguruan lehiaketa eta bestelako gertakizunak antolatzen dituzten elkarteen erregistroa sortu, eta lehiaketa nahiz gertakizun ofizialak aintzatesten dituen Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 1999ko abuztuaren 16ko Aginduaren (1999ko abuztuaren 30eko EHAA, 165. zk.) 2. artikuluak xedatutakoarekin bat, eta agindu horretan eskatutakoak beteta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Artzain txakurren 2012ko lehiaketa ofizialak finkatzea, ebazpen honi atxikitako eranskinean azaltzen den moduan.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 10a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.

ERANSKINA

ARTZAIN TXAKURREN LEHIAKETA OFIZIALAK 2012. URTERAKO

Lehiaketa	Eguna	Lekua	Elkarte antolatzailea
Arabako Artzain Txakurren Txapelketa	2012-09-08	Murgia	Arabako Artzain Txakurren aldeko Elkartea (ARATE)
Bizkaiko Artzain Txakurren Txapelketa	2012-09-09	Mungia	Bizkaiko Artzain Txakurren Elkartea (BATE)
Gipuzkoako Artzain Txakurren Txapelketa	2012-09-02	Legazpi	Gipuzkoako Artzain Txakurraren Elkartea (GIATE)
Euskadiko Artzain Txakurren Txapelketa	2012-09-16	Axpe	Durango Merinaldeko Adizkideen Gerediaga Elkartea
Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa	2012-09-23	Oñati	Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa Antolatzaileen Elkartea